



ZIZURKILGO UDALA

EZ OHIKO OSOKO BILKURARAKO
DEIA

Honen bidez, Ez Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: **2012ko abuztuaren 10a, ostirala**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO
EXTRAORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Extraordinario a celebrar:

Día: **10 de Agosto de 2.012, Viernes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- “EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE” MOZIOA.

Zizurkil, 2012ko abuztuaren 8an.

Alkatea.

ORDEN DEL DIA

1.- MOCION “EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE”.

Zizurkil, 8 de Agosto de 2.012

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

2012ko ABUZTUAREN 10ean EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EL DIA 10 DE AGOSTO DE 2.012

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA / ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

ZINEGOTZIAK/ CONCEJALES:

Eva Usandizaga Mujika (Bildu)

M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu)

Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)

Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)

Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

IDAZKARIA / SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabiko abuztuaren hamarreko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Aratz Esnaola Arruti (Bildu), Leire Zubeldia De Esteban (Bildu) eta Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) zinegotziak ez da etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela lege ezarritako quoruma bertan dagoelako.

1.- “EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE” MOZIOA.

Aurkeztutako Mozioa Akta honen I Eranskinean ikusi daiteke.

Udalbatzak Mozioa onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 7 (6 Bildunerak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurrerako botoak: 0.
- Abstenzioak: 0.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día diez de Agosto de dos mil doce, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Aratz Esnaola Arruti (Bildu), Leire Zubeldia De Esteban (Bildu) y Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.)

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

1.- MOCION “EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE”.

La Moción presentada se refleja en el Anexo I del presente Acta.

La Corporación vota la aprobación de dicha Moción, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 7 (6 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.



ZIZURKILGO UDALA

Beraz, Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar la Moción presentada.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hoge minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y veinte minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

**O.I.
ALKATEA.**

**Vº Bº
EL ALCALDE.**





I ERANSKINA -- ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA

ZIZURKILGO UDALA

2012 ABU. - 9

EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 754

Euskal Presoen eskubideen aldeko herri mugimenduak urteak daramatza Euskal Preso Politikoen sakabanaketa politika salatzen eta honek ekar ditzakeen ondorioez ohartarazten. Zoritxarrez, ohartarazpen horiek egia bihurtu dira gure herrian. Mikel Egibar preso zizurkildarraren senitartekoek ezbehar larria izan dute errepidean, espetxeko bisitatik bueltan zetozeala. Hiru herritar ospitalean daude une honetan sakabanaketa politikak eragindako istripuaren ondorioz.

Udal honek duela hilabete batzuk Euskal Preso Politikoen eskubideen aldeko mozioa onartu zuen eta orain, berriro, gure jarrera azaldu beharrean gara. Euskal Herriak bizi duen egoera historiko honetan ireki den garai berriari aurka egiteko modua da espetxe politika krudel honi eustea.

Gernikako Akordioan hitzartutakoari jarraiki, eta Aieten Nazioarteko Komunitateak zabaldutako mandatuaren norabidean, ETaren erabakiak, gatazka politikoa bake bidera eramateko aukera baten aurrean jarri gaitu. Normalizazio politikora bidean eman beharreko urratsetan, besteak beste, Euskal Preso Politikoen eskubideen errespetua bermatu beharko da. Gernikako Akordioaren hitzetan honako hau ezinbestekoa da:

"Euskal Preso Politikoen aurka aplikatzen den espetxe politika etetea, konfrontaziorako estrategia gisa erabili da eta. Era berean, honako neurri hauek hartzea, amnistiarako bidean lehen urrats moduan, gatazka politikoak eragindako preso eta iheslari bat bera ere egon ez dadin:

- Preso guztiak Euskal Herrira ekartzea dispertsioarekin amaituz.
- Gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea.
- Epaituak izateko zain dauden preso prebentiboei behin behineko askatasuna ematea.
- Legeak ezarritakoak beteak dituzten zigortutako preso guztiei, baldintzapeko askatasuna ematea.
- Legeak jasotzen dituen espetxe onurak aplikatzea, murrizketarik eta arbitrariotasunik gabe.
- Zigorra betetzeko muga 40 urtetan ezartzen duen legeria indargabetzea."



ZIZURKILGO UDALA

Madril eta Parisek ezin dute orain arte erakutsi duten jarrerarekin jarraitu: Sakabanaketaz gain, Parot Doktrina, gaixotasun larriak dituzten presoen egoera... Euskal preso politikoen eskubide urraketak ez du etenik.

Hau guztia kontuan hartuta honako adierazpen hau aurkezten dugu Zizurkilgo Udaleko Osoko Bilkura honetara eztabaidatua eta onartua izan dadin:

- 1.- Zizurkilgo Udalak elkartasun osoa adierazi nahi die Mikel Egibarren gertukoei, bereziki, ospitalean dauden senitartekoei, eta baita herrian sakabanaketaren ondorioak pairatzen duen orori ere.**
- 2.- Udal honek beste behin Euskal Preso Politikoen eskubideen errespetua eskatzen du. Eskubideak beti dira bete beharrekoak, baina are gehiago bizi dugun aukera historiko honetan. Honenbestez, eskatzen dugu sakabanaketaren amaiera, preso guztien Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoek askatzea eta zigorra beteta dutenen askatzea.**
- 3.- Herritarrei deialdi zabala eta anitza luzatu nahi diegu, ezberdintasun politiko guztien gainetik giza eskubideen alde urratsa eman eta herrian antolatu diren mobilizazioekin bat egin dezaten.**

Zizurkil, 2012ko abuztua